

945 35 8211
telepizza.es



**ORA ETA
MONOPOLIOA**

Telepizzan infiltratuta



telepizza

Aurtengo maiatzean *Glovolizazioa* izeneko artikulua argitaratu nuen: hiru hilabete eman nituen banatzaile lanetan Glovo enpresarentzat, langileen lan-baldintzak ikertzeko. Gehienbat, artikuluari buruzko erantzun positiboak baino ez nituen jaso, bai irakurleengandik bai Glovoko lankideengandik (konpainiak rider deitzen dien horiengandik). Glovoko banatzaile gehienak baztertuta bezain esplotatuta sentitzen ziren, eta irakurleek, batik bat, ikusi nahi zuten nola funtzionatzen duen egungo esplotazio-molde berrienetarikoa batek.

Halere, salbuespen txiki bat egon zen. Rider bat harremanetan jarri zen nirekin, kexu, esanez enpresaren gezurrezko itxura zabaltzen ari nintzela. Sektorrean, beste lan prekario asko dagoela zioen, esaterako, Telepizzan. Laburbilduz, Glovo kritikatzeko boladan jartzen ari zela uste zuen. Glovorentzat lanean dirutzen ari zela idatzi zuen (elkarrizketatu nituen rider bakar bati ere inoiz entzun gabekoa) eta, horrez gain, langileei tratatu txarra ematen dieten enpresa asko baldin badago, zioen, zergatik ote hainbeste kezka Glovorenkin?

Dena den, Glovoren esplotazioa zuri-tzeko falazia zahar hori erabiltzeaz gain (ingelesez *whataboutism* esaten diogun hori), pertsona horrek arrazoi argia zeukan kontu batean: enpresa hori kritikatzeko erraza da hedabideentzat. Aldiz, prekaritate era tradizionalei buruz ari zena ez da hain kitzikagarria eta ez dauka, halaber, gauza berrien freskotasuna. Hortaz, lanean hasi nintzen Telepizzan. Hauxe da topatu nuena.

Telepizzan lana lortzea gauza arrunt erraza izan zen. Interne-teko eskaera bete eta berehala deitu zidaten. Gidabaimenik ba al neukan eta lanean noiz has nintekeen galdetu zidaten. Egun gutxi eta gero, kontratatu egin ninduten eta ikastaro trinko batera bidali. Bertan, laneko estresa kudeatzeko yoga nola erabili azaldu zidaten, baita hobe dela lapur armatuei aurre ez egitea ere. Behar omen nuen prestakuntza guztia jaso eta gero, kontratu finkoa sinatu, lankide bati lagundu bidalketa pare batean, eta neure kabuz hasi nintzen. Glovorekin bizi nuen prozesua oso antzekoa izan zen, gauza batean izan ezik: lanean ikasten emandako denbora ea kobratuko nuen galdetu nuenean, enkargatuak, zur eta lur, honako erantzun irmoa eman zidan: "Hemen zauden bitartean, ordaindu egiten dizugu".

Laneko alderdi batzuek ageriko desberdintasunak zeuzkaten Glovorekin alderatuta, ez nuen lanean erretzeko baimenik (irrazionalki, esperientzia osoko gauzarik itogarriena). Diseinu kaskarreko uniforme bat jantzi behar nuen: poltsikoetan kremailerarik ez eta motozikletan nindoala dirua ez galtzeko lanak izaten nituen. Horretarako, gerriko poltsa erosi behar izan nuen, gau bakoitzeko eskudiru kopurua nire hilabeteko soldataren erdia zen eta.

Oraingoan, baina, zenbat kobratzen ari nintzen banekien, gutxieneko soldata baino gutxiago bazen ere. Jaiegunak banituen, langabezia prestazioak, eta

benetako aseguruia ere bai istripurik izanez gero. Glovorekin ez bezala, ez nuen lanaldi erdia ematen ezer egin eta kobratu gabe; horrek, gainera, denbora azkarrago pasatzen laguntzen zuen.

Alderik nabarmenena, dena den, hau zen: Glovorekin baino gehiago irabazten ari nintzen orduko. Oinarrizko soldata 5,20 euro orduko zen, edo 832 euro hileko lanaldi osoan arituz gero (900 euro dira, ordea, gutxieneko soldata Hego Euskal Herrian). Bidalketa bakoitzarekin plus bat ordaintzen dute; horri esker orduko 6 euro baino gehiago kobratzen nituen: Glovorekin irabazten nuena baino justu apur bat gehiago eta *rider* askoren irabaziak baino nabarmen gehiago, haiek kontatu didatenez. Egia da, kontratu eta soldata handiagoarekin batera lanorduetan erretzea debekatzen zidan nagusi bat ezarri zidaten, baina... Glovok eskaintzen duen "askatasunarekin" alderatuta? Kontratua nahiago.


Telepizzan, lanorduetan erretzeko bideak topatu nituen arren askoz kontrol handiagoaren pean sentitzen nintzen. Adibidez, bizikletarekin bidetik pixka bat desbideratuz gero Bartzelonatik deitzen zidaten. Nagusia izatea ez da gauza dibertigarria, jakina, baina are gutxiago GPS bitartez une oro kontrolpean egotea.

Oro har, nagusien jarduna nahiko atsegina egin zitzaidan. Telepizzako nagusien krudelkeria eta legez kanpoko jokaeren salaketa asko irakurri dut internet bidez, eta egiatzkoak direlakoan

nago, baina neure nagusiak ahalegintzen ziren lana atsegina izan zekigula. Ordu-tegia, ordea, lanaren alderdirik okerrenea zen, Glovon bezala. Bizpahiru orduko lanaldiak neuzkan; hortaz, astean 22,5 ordu egin ahal izateko ia gau guztietan lan egin beharra neukan, asteburuetan barne. Lanaldia hasi baino lehen bertan egon behar nuen uniformea janzteko eta, halaber, behar baino beranduago irtetzen nintzen kontuak egiteko. Jatetxera joan eta itzultzeko denbora ere kontuan hartuta, ordubate inguru gehitu behar izaten nion lanaldi bakoitzari.

Lantegi batean zortzi ordu ematen dituenarentzat, hamabost minutu gehiago kobratu gabe aritzea lanean ezer gutxi izan daiteke. Baina lanaldi laburretan dihardunarentzat, horrelako denbora-tarte txikiak apurka-apurka metatu eta, azkenean, kobratu gabeko zortzi ordu-ra hel daiteke astero; lanean emandako denboraren %26, alegia. Ahal zutenean, nagusiek minutu batzuk lehenago irtezen uzten ziguten uniformea erantzeko; baina hori ez zen ohikoa: geure lanaldiak ezin hertsia goak ziren bezeroen ordutegietara moldatzeko.

Zenbat eta zailagoa izan langileak topatzea enpresa batentzat (Telepizzak gidabaimena duen jendea nahi du eta gehiago ordaindu behar du enpleguak kaleratzeko), orduan eta bide tradizionalagoak erabiliko ditu enpresak haiek esplotatzeko. Lokaletako nagusiak lan-giroa hobetzen saiatzen dira, bai, baina enpresak gutxieneko soldata baino gu-



txiagi ordaintzen du. Uniformea ematen dute, baina horren eraginez lanera lehenago iritsi behar da eta, gainera, ez da lanerako erabat egokia. Halere, Glovorenkin ez bezala, lankide artean laneko alderdi txarrei buruz hizketan, betiere esaldi berarekin amaitzen genuen: "Tira, bage-nekien zer-nolako lana zen hau". Neure nagusiak ere hori esan zidan lana utziko nuela esan nionean, erabakia ulertu egin zuen eta ez zen ni geratzeko konbentzitzen saiatu. Jabeak langileekin makurkeriatan ari baldin badira, gutxienez denok gara horren jakitun.

Atsegin nuen kanpoan motorrez ibiltzea, baina jatetxeko giroa nahiko etsigarria zen. Banatzaile eta sukaldari batzuek bertan bederatzi urte inguru eman dituzte lanean; horietako zenbaitek beste egitekorik ez eta lana hasi baino ordu batzuk lehenago ere jatetxean bertan egoten ziren hitz-aspertu betean edota langileen %50eko deskontuaz neurririk gabe baliatzen. Beste langile batzuk lanarekin aspertuta zeuden ikasleak ziren edota leher eginda zeuden migratzaileak, lan hori baino gehiago zutelako. Misteriotsuenak, ordea, nagusiak ziren, batez ere lana serio demonio hartzen zuten horiek: ezin ulertu zerk motibatzen ote zituen adin ertaineko esperientziadun profesional haiek horrelako leku batean geratzeko.

KAPITALISMO GLOBALAREN UR NAHASITAN

Lanean hasi eta gutxira Twitterreko txio biral baten berri izan nuen. Langile batek mezu publiko bat bidali zion Telepizzako kontuari, enpresatik jasotako tratua ez zegoela pozik adieraziz. Mezua nahita zegoen era ambiguoan idatzita eta Telepizzak, pertsona hura bezeroa zelakoan, ziztu bizian erantzun zion arazoa konpontzeko laguntza eskainiz. Langileak, orduan, argi utzi zien gutxieneko soldata ere ordaintzen ez ziotelako ari zela kezuka. Espero bezala, Telepizzaren erantzuteko bizkortasuna une horretan amaitu zen.

Jazoera hori ezagutu dudana lehen kasua izan da; geroago, boikotak, grebak eta epaitegietako borroka ikusi ditut. Gehienek CGT eta UGT sindikatuen parte hartzea izan dute; batez ere, Bartzelonan eta Zaragozan, non langileen %70k hartu duen parte greban. Bi hilabete eta gero, Telepizzak aitortu behar izan zuen ez zela gutxieneko soldata ordaintzen ari, eta orduko 50 zentimo igota soldatigoera partziala onartu zuen.



Enpresa tradizionalki esplotatzaile baten aurkako sindikatu-borroka tradizionala dirudi honek eta horixe da hein batean. Greba haiekin zerbait lortu zuten. Glovok duen lege-betebehar anbiguorik ez dauka Telepizzak eta horrexegatik langileak grebaz baliatu dira gutxieneko soldata kobratzeko, baita 2019ko hasieratik zor zaiena kobratzeko ere (dena den, neure bankuko kontuan diru hori agertzeko zain nago oraindik).

GPS bitartez une oro kontrolpean egonda, askoz kontrol handiagoaren pean sentitzen nintzen. Bizikletarekin pixka bat desbideratuz gero Bartzelonatik dei egiten zidaten

Langile-borroka tradizionalaren ahalmena antzeman daiteke aipatu kasuan baina, era berean, borroka horrek ekonomia globalizatu berrian dituen mugak agerian utzi ditu. Telepizza legea hausten ari zen modu nabarmenean. Gero-

go, presiopean, Telepizzak legeak eskatzen dion gutxieneko bakarrik emango du, ez gehiago. Bi jarrera horiek arrazoi bera dute.

Legez kanpoko soldata horien kontua osorik ulertzeko enpresa erraldioen bulegoetara jo behar dugu, AEBetara. Istorio honetan, enpresa xume bat dugu, amets amerikarraren diru errazak eta zabor-janariak inspiratua, kapitalismo globalaren ur nahasitan noraez dabilena.

Telepizza kubatar batek sortu zuen AEBetako pizza-banaketa enpresaren negozioa ezagutu eta gero. Espainiako Estaturan eraman zuen janari azkarra saltzeko frankizia-sistema eta molde fordista zentralizatu hura. Dena den, aurkari sendoak izan ditu dema horretan (Pizza Hut edo Domino's, kasu) eta haien eraginez zor handia metatu du. 2008ko krisiaren ostean, kontsumoaren beherakadaren eraginez, enpresak 35 milioi euro ordaindu behar izan ditu urtero zorra kitatzeko. Garai horretan, askok uste zuten konpainia desagertzeaz zegoela.

Ohi bezala, nazioarteko bankariek eta arrisku-funtsetako zuzendariak odol-uzaina antzeman zuten. Haien artean KKR zegoen, AEBetako inbertsio-enpresa bat, 80ko hamarkadan ezagun egin zena negozio ahulak era erasokorrean erostegatik. Hasieran, Telepizza xurgatzen saiatu zen, baina gero taktika zertxobait aldatu zuen. Enpresa bat erosi eta gero



haren aktiboen likidazioa egin ordez, egun inbertsio itzelak egiten dituzte industria oso bat monopolizatzeo aukera emango dieten enpresetan. KKRk arrakasta handia lortu du estrategia horrekin: bere aktiboek 545 mila milioi dolar balio dute, Espainiako Estatuko BPGren herena. Bulegoak ireki dituzte mundu osoan eta milioi bat inguru langile daukate; haien eragina eta baliabideak estatu askoren parekoak dira.

Telepizzarentzat lanean hasi nintzela, 2019ko udan, enpresan aldaketa handia gertatu zen. Telepizza Group izeneko enpresa nagusi berri baten parte bihurtu zen, eta KKRk haren %80 erosi zuen 400 milioi euroren truke. Gainera, aldi berean, Telepizza Group enpresak Pizza Hut ere erosi zuen; horren bitartez, munduko marka askoren kudeatzaile handiena bihurtu da pizza-banaketaren negozioan, baita merkatuaren jaun eta jabe ere Espainiako Estatuan.

Orain, eskala handiago horretan, errentagarriagoa izango zaie Telepizzak betidanik izan duen ore, gazta eta bestelako osagaien ekoizpen zentralizatua. Askoz ere gutxiago ordaindu ahaliko du oinarrizko osagaien truke, inoiz baino kopuru handiagotan erosiko ditu eta. Bi kudeaketa-egitura murriztuz, etekin bera lortu ahaliko du langile gutxiagorekin. Eta halaxe izan da, azken txostenek erakutsi baitute Pizza Hut erosi eta gero, beren ustiapen-marjina %10,7tik %12era igo dela.

Era berean, Telepizza hedatzen den neurrian, langileek aukera gutxiago izango dute beste lan bat topatzeko sektore berean, eta Telepizzak diru gehiago izango du sindikalisten aurkako auzien kostuak ordaintzeko. Presentzia handiagoa izan ahala hiri-paisaia eta marketinean eta bere app-ean gehiago inbertitu ahala, kontsumitzaileak aukera gutxiago izango du; zailago izango du aukera gehiago existitzen dela jakiteko ere. Hitz batez, zenbat eta sendoago izan Telepizza, orduan eta ahulago gainerakoak. Edo, finantza-terminoetan esanda, txiroago.

KKRk Telepizzarekin egin duen inbertsioa jokaera arrunt bihurtu da inbertsio-talde erraldoien artean: esparru jakin bat monopolizatzeo ahalmena duten enpresak diru kopuru itzelez hornitu, eta horrekin abantaila erabakigarria ematen diete haien lehiakideen aurka. Dena den, horrelako inbertsio handiak egiten dituzten firmek mozkin handiak lortu nahi dituzte trukean. KKRk epe laburrean jakatu izan du enpresak erositik eta suntsituz, mozkin lasterrak irabazi nahian prozesuan. Orain, ordea, ikasi omen dute erositako enpresek monopolioak sor ditzaketan heinean, mozkin jario emankorra mantendu daitekeela kostu gutxiarekin.

ZERGATIK EZ DU TELEPIZZAK GUTXIENEO SOLDATA ORDAINTZEN?

Ez da doilorkeria hutsa, nazioarteko sistema handi baten ondorioa baizik, arrisku handiko inbertsio monopolistetan

oinarrizten den sistema. Nazioarteko inbertsio-firmak eta munduko jenderik aberatsena are gehiago aberastea du helburu langile guztiei ahalik eta gutxien ordainduz. Telepizzak, horren menpean dagoen heinean, ezin du bestelakorik egin. Ezinezkoa da jokaera arduratsurik edukitzea eskala horretako negozioetan; ez dute horrelakorik sustatzeko akuilu edota presiorik.

Telepizza eta Glovo sistema bereko atalak dira, baina enpresa-eredu desberdinekin jarduten dute. Telepizza bietatik arriskutsuena izan liteke. Zergatik? Berari buruz idaztea hain kitzikagarria ez den bitartean, geure bizitzetan eta ekonomian ondorioak izaten dituelako, ez besterik.

Telepizzak ez du gutxieneko soldata ordaintzen desparekotasun maila historikoak sortu dituen finantza-sistema global baten parte delako. Sistemak egoera ahulean dauden enpresak hartu eta mozkinak maximizatzeo eta arimak birrintzeo makina efiziente bihurtzen ditu. Glovo eredu horrekin hasi zen, Telepizzak bizitza erdiko krisi moduko bat pairatu zuen, baina orain piztia bera dira. Bertako pizzeria batek Telepizzak baino zerbitzu motelagoa izan dezake, edo garestiagoa izan daiteke, baina askoz erantzukizun handiagoa dute bai beren langileekin bai gizartearekin. Alferrik da Telepizzari boikot egitea soldatak igo ditzaten. Bertan erosteari utzi beharko genioke eta horrelako negozioak behin betiko baztertu. ●